

NON ETA MUGAN, ZER ETA ARTEA: MUGARTEA

Ermuan, urtebeteko iharduera duen kolektiboa sortuberritzat jotzeak ez dirudi inor harritu beharko lukeenik; gainera kolektibo horren zeregina ARTEaren hesparruan ematen bada, jende multzo handiak baino kontutan hartzen ez dituzten ermuarrei ezezaguna suertatuko zaie izena bera ere: -MUGARTEA. -Zer?...

-MUGARTEA. -Ahhh. Zorionez, badira herri honetako biztanleen artean taldeen lana baloratzerako orduan, kuantitatiboak ez diren beste erizpide batzuk ere kontutan hartzen dituztenak. Horrelako pertsonak, gaur egun minorizaturik dauden hainbat aktibitateen alde egiten duten inurri - lanari esker posiblea da, zaila izanda, futbola, rocka edota folklorea ez den beste zerbaitetaz ere gozatzea. Horrelako pertsonak somatzen ditugu duela urtebete pinturaren zaletasunaren inguruan sortu zen MUGARTEA kolektiboan.

Hasiera besterik izan ez den urte honetan, hiru ikastaro



Mugartean arte guztiek dute lekua.

SANTOS VEGA

antolatu dituzte, eta hauetariko bakoitzean egindako lanekin, erakusketa bana amaitzerakoan. Hasierako ikastaro hauen helburua, taldekideek eurek esan digutenez, "pintura zein marrazkigintzan interesa duten pertsonak elkartzeara" izan da, eta "leku edota material faltagatik ezin badute praktikatu, aukera eman, hutsune horiek betetz, ekin diezaioten".

Aipatutako ikastaroetan,

hasierakoak izanik, bakoitzak nahi izan duen teknika erabili ahal izan du, baina "aurrera begira eta errepikatu dutenekin, programa bat jarraitzen dugu, marrazkigintzatik hasita, akuarela, olio, akrilikoak eta gainontzeko teknikak landuz".

Orain arteko dinamikatik pixka bat urrunduz, MUGARTEAk antolatu duen hurrengo ekintza, ekainaren 5ean ospatuko den "KALE MARGO SARIKETA" da;

bertan nahi duen edonork har dezake parte, ermuarra ez izan arren. Gaia Ermuko Herria izanda ere, herri barnera mugatuko da, eta neurriak, lan egiteko era zein pinturaren oinarriak erabiliko den materialeak, partehartzaileen aukeran utzi dute antolatzaileek.

Sariketa honetarako gainontzeko oinarriak, taldeak zabalduak egitarauan azaltzen dira, hala nola, diru sariak, trofeoak eta margotzeko materialeak; ermuar batek egindako lan onenarentzat sari berezia dago.

Sariketaren hurrengo astean, eginiko lanen erakusketa izango dugu ikusgai, Udaletxeko atikoan, eta egileek nahi izanez gero zerbait erosteko aukera ere bai.

Antolatzaileek diotenez "ermuarren partehartze ugaria gauza ziurra da". Hala bedi. Zorionak!

Manuel Moreno

**ZARAUZTARRA
JATETXEA**

LEHEN, ORAIN
ETA BETI

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana



MARI ASUN LORAK

Loregintzan diplomatua

Diputación, 9 • Teléfono 17 43 79 • **ERMUA**
Teléfono 17 32 13 • **MALLABIA**



**MIGUEL
Harategia**



PROBALEKU, 3

☎ (943) 17 05 63 Harategia
☎ (943) 17 29 03 Etxea

48260 -ERMUA
(Bizkaia)